



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.com

2015eko URTARRILA - 160. zenbakia

## Bertso Korrikaren bigarren edizioa izango da martxoaren 1etik 15era

**AEK-k antolatuta, martxoaren 19tik 29ra izango da Korrikaren 19. edizioa, Urepeletik Bilbora. Duela bi urteko esperientzia errepikatuko dugu eta martxoaren 1etik 15era Bertso Korrika izango da 29 herritan.**

AEKrekin elkarlanean, 2013an abiatu genuen Bertso Korrika ekimena: Korrika herriz herri girotzeko bertso zirkuitua, nagusiki ostatuetan egin zena, publikoan euskaltegi ikasleak eta bertsozaleak elkartzeko balio izan zuena.

Orain dela bi urte egin zen lehenengo edizio horretan 25 euskaltegi eta bertso-eskolak hartu zuten parte. Osotara, 99 bertsolari eta 20 gai-jartzaile aritu ziren Euskal Herriko hainbat herritan programatu ziren saioetan.

Ekimena oso positibo baloratu genuen, horregatik bigarren edizioari ekingo diogu martxoaren 1etik 15era.

### Lanketa eskoletan

Bertso Korrikaren bitartez bertsolarietara hurbiltzean lagundu nahi zaie euskara ikasleei. Izan ere, ikasle askorentzat bertso saio bat entzungo duten lehen aldian izango da. Horregatik, saioko azalpenak eta bertsolariaren jarduna egokitu egingo dira, euskara ikasleek uler dezaten.

Horrez gain, bertso saioan zer aurkituko duten, aurrez landuko dute euskaltegian. Horretarako, bertso saioko gai-jartzaile joango da euskaltegi klasera, eta saioaren berri emango die: bertsolariak aurkeztuz, saioan egingo dituzten ariketa motak azalduz, eta bertso baten sorkuntza prozesua zein den azalduz.

Ondoren, euskara ikasleek gai-jartzailearen laguntzaz saiorako ariketa edo gai batzuk prestatuko dituzte.

Nolanahi ere, bereziki euskara ikasten ari direnentzat begirako ekimena bada ere, bertsozaleentzat ere saio hauetako atek zabalik daude, publikoan bertsozaleak eta euskara ikasleek bat egitea baita ekimenak duen beste helburuetako bat.

28 bertso-eskolak hartu dute euren herrian saioa antolatzeko ardura. Bertso-eskola bakoitzak herrian dituen aukerak eta ohituren arabera, neurriko saioa edo ekimena antolatuko du. Horietan plazaz plaza asko ibili ohi diren bertsolariak eta gutxiago aritzen direnak arituko dira.

Horiekin batera, 30 gai-jartzaile arduratuko dira euskaltegi klase didaktikoak emateaz eta bertso saioan gai-jartzaile lanak egiteaz.

### 29 herri hauetan egingo da Bertso Korrika:

- ARABA:** Kanpezu, Agurain, Oion, Laudio.
- BIZKAIA:** Durango, Zornotza, Derio, Bilbo, Barakaldo, Algorta, Erromo, Markina-Xemein, Gernika-Lumo, Zalla, Galdakao, Arrigorriaga.
- GIPUZKOA:** Larraul, Andoain, Segura, Arrasate, Lasarte.
- NAFARROA:** Larraun, Iruñea, Lizarra, Elizondo.
- LAPURDI:** Azkaine, Itsasu, Hendaia.
- ZUBEROA:** Urdiñarbe.

Saioen inguruko xehetasun guztiak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) web gunean aurkituko dituzue.



Duela bi urte, Markina-Xemeinen Bertso Korrikan egin zen saioa. //XDZ



**FREDI PAIA**  
Bilbo, 2014-XII-20  
Bizkaiko txapelketako irabazlea

Barkatu Txato, Ardatz ta Arkaitz heriotzaren krudela barkatu, Manex, Orkatx, Lexuri gaur ondo irten zait kartzela barkatu, ama, Xabier ta Itxaso ta nire lagun tropela. Kanposantuan zin egin nuen aitarentzat da txapela berarengandik asko ikasi ta jarraitzen dut horrela. Hiru urte joan zinela ta hala ere hemen zaudela. Eta euskeraz eskeintzen dizut gure artean ez bezela itsasgizonen zeruan ziur ikasiko zenuela.

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazio@bertsozale.com

# Arabako eta Nafarroako txapelketetarako motorrak berotzen

**Arabak eta Nafarroak hartuko diote lekukoa amaitu berri den Bizkaiko Bertsolari Txapelketari. Bi urtetik behin jokatzen dira txapelketa hauek eta hurrengo asteotan jakinaraziko dituzte horien gaineko xehetasun guztiak. Hala ere, dagoeneko ezagutzera eman dituzte zenbait datu.**

Arabako Bertsolari Txapelketan 35 bertsolarik eman dute izena. Sei aurrekanporaketa jokatu zituzten irailean eta urrian, eta horien ondoren erabakita gelditu zen zeintzuk izango diren Txapelketako hurrengo fasean parte hartuko duten bertsolariak. Osozara 13 bertsolari sailkatu ziren, eta aurretik duela bi urteko bost finalista zeuden zuzenean sailkatuta.

Hortaz, 18 bertsolarik jokatuko dituzte hurrengo sei saioak. Bi itzulitara egingo dira saio horiek eta martxoaren 21ean finala jokatuko da, Gasteizko Principal antzokian. Nolanahi ere, Arabako Bertsolari Txapelketaren gaineko xehetasun guztiak urtarilaren 17an emango dituzte ezagutzera, Langraitz Oka herrian egingo duten aurkezpenean.

## **Nafarroan, 33 bertsolari**

Nafarroan ere prest dute 2015eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa. 33 bertsolarik eman dute izena, eta dagoeneko kanporaketa bat jokatu dute.

Lehen aldiz txapelketan izena eman duten sei bertsolariek hartu zuten parte abenduaren 12an Iruñean jokatu zen kanporaketan. Saio horretan hiru bertsolarik lortu zuten hurrengo faserako sailkatzea.

Kanporaketaren ondoren, 30 bertsolarik hartuko dute parte otsailaren 7an hasiko diren final-laurdenetan. Finala, berriz, martxoaren 28an jokatuko da.

Otsailaren 3an aurkeztuko dute ofizialki Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2015.



Aurten ere Gasteizko Principal antzokian jokatuko da Arabako finala, martxoaren 21ean. // Arabako Bertsozale Elkartea

# Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Fundazioak sustatu duten ikerketa sarien ebazpena

**Mintzola Fundazioak, Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, bertsolaritzari buruzko ikerketa-lanen eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko egin zuen deialdira sei proiektu aurkeztu ziren.**

Sei proiektuak interesgarritzat jo zituen Gidor Bilbao, Juan Kruz Igerabide eta Jesus Mari Makazaga doktoreek osatzen zuten epaimahaiak.

Hiru bereizi behar ziren eta hauek izan dira saria irabazi duten ikerketa proiektuak: Ainhoa Aizpuruaren *Bertsoa kolorez jantzi zenekoa*, Nerea Elustondoren *Emakume bertsolariek plazan izan duten bilakaera* eta Gema Lasarte, Pilar Aristizabal, Amaia

Alvarez, Ana Isabel Ugalde, Maria Teresa Vizcarra eta Ainhoa Alvarezen taldearen *Bertsolaritza eta generoa*.

Mikel Laboa Katedrak zein Mintzolak oso balorazio ona egin dute jasotako lan kopuruarengatik, nola ikerketa proiektuen balioarengatik. 2.000 euroko hiru sari jaso dituzte aukeraturako proiektuek eta orain 2015eko ekaina bitarteko epea dute haien lanak entregatzeko.

# Urtarrilaren azken egunean ospatuko da Bertso Eguna

Urtearen hasierarekin batera Bertso Eguna dator. Urtarrilaren 31ean izango da aurtengoa. Eta jolaserako proposamenarekin dator. Arnaitz Lasarte, Eñaut Agirre, Ainhoa Aranburu eta Josu Goikoetxea aritu dira ekitaldiko gidioa osatzen. Hamabi bertsolari izango dira kantuan Donostiako Kursaal.

Halere, ekitaldiaren xehetasunak azken astean emango ditu Bertsozale Elkarteak. Urtarrilaren 27an izango baita aurtengo Bertso Eguneko aurkezpen prentsaurrekoa.



Iazko Bertso Eguneko ekitaldi nagusiko parte-hartzaileak.//XDZ

Arratsaldeko ekitaldiaren ondotik, bigarren urtez jarraian Groseko Manteo kiroldegian afaria eta gaueko festa izango dira. Bide laburra dago Kursaaletik 800 laguntzat afaria prestatuko den kiroldegira. Upel arteko festan ez da bertsorik faltako: bertsolari bikoteak eta hirukoteak arituko dira kantari, bat-batean. Aurreko urtean afarian bat-bateko bertsoak falta zirela adierazi baitute bertsozaleek.

## Sarrerak, salgai

Bertso Eguneko arratsaldeko ekitaldirako zein ondorengo afarirako sarrerak urtarrilaren 7an jarriko dira salgai [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian. Urtarrilaren zazpitik hamalaura Bertsozale Elkarteak bazkideek lehentasuna izango duzue sarrerak erosteko.

Tarte horretan, bazkide sarreraz gain beste bat eskuratzeko aukera izango duzue.

Urtarrilaren 15etik aurrera edonork erosi ahal izango ditu, sarrerak amaitu bitartean. Sarrerarik gelditzen bada, ekitaldi egunean bertan jarriko dira salgai Kursaal, 16:30etik aurrera.

## Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak komunikazio teknikaria behar du

### Lanpostuaren zeregina eta eginkizunak:

Komunikazio saileko arduradunaren zuzendaritzapean eta beste sailekin zehar lerroan, Bertsozale Elkartearen eta Mintzola Fundazioaren Komunikazio estrategia gauzatzea.

Deialdi osoa ikusgai da [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

### Eskaintzen da

Egun osoko lan kontratua Amasa-Villabonako egoitzan.

Hasteko aurreikusitako data: 2015eko martxoaren 1a.

Interesatuok bidali *Curriculum Vitae*a eta motibazio gutuna 2015eko urtarrilaren 23a baino lehen ondorengo helbideetara:

Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Kale Nagusia 70, Amasa-Villabona (Gipuzkoa)

[komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)

Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat aipatutako helbide elektronikora edo deitu 943 694129 telefono zenbakira.

## Xenpelar Dokumentazio Zentroak aldi baterako ordezkapenerako dokumentalista behar du

### Eskaintzen da:

Kontratu mota eta ordutegia: lanaldi osoa, goiz eta arratsalde, Villabonako egoitzan. Iraupena: Aldi baterako ordezkapena.

### Lanpostuaren deskribapena:

Bertsolaritzak sortutako dokumentazioaren bilketa, antolaketa eta katalogazioa:

- Agendaren tratamendua eta zerbitzua
- Prentsa albistearen katalogazioa eta zerbitzua
- Argazkien tratamendua eta zerbitzua

Arreta publikoa

### Ezinbesteko baldintzak:

Lanpostuarekin zuzenean lotutako ikasketak izatea.

Eskarmentua izatea antzeko lanetan.

Ordenagailu-programa ezberdinekin lan egiteko erraztasuna izatea.

### Baloratuko da:

Gizarte mugimenduetan esperientzia eta Bertsolaritzarekin harremanak.

Interesa duenak *Curriculum Vitae*-a bidali behar du Xenpelar Dokumentazio Zentrora ([xenpelar@bertsozale.eus](mailto:xenpelar@bertsozale.eus)), **2015ko urtarrilaren 12rako (urtarrilak 12a barne)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu (+34) 943 69 24 77 telefonora.



## Puntua jarrita

AITZOL BARANDIARAN

Eskerrik asko, Ainhoa, puntuagatik.

Zaila da bai, txapelketarik gabeko bertsojaritza irudikatzea. Baita norbera ere. Bertsojaritzaren sistema ez ezik, bertsojarien zein entzuleen bertsoa ulertzeko era goitik behera aldatu beharko litzatekeelako. Eta akaso ez da komeni edo ez gaude horretarako prest.

Txapelketak akuilu ala akuilu diren ere galdetzen zenidan. Ba, nire ustez, akuilu dira, zalantzarik gabe. Ez baitugu aldamenera begiratu besterik horretaz jabetzeko. Akuiluak akuiluratzen zaituenean ordea, orduan komeriak. Eta hortik zelai librera bainoago, desertura egindako jauziak.

Umetatik, txapelketara bideratutako bertso-eskolak jaso genituen. Lagunarte ederrean, urtean behingo taularatze horretan Eskolarteko txapela jantzi beharrak bizi gintuen. Zer ikusi, hura ikasi. Gazte sariketak etorriko ziren gero, Gipuzkoako Txapelketak ondoren... Gerora ohartu naiz, eta oraindik zer pentsatua ematen dit, gure belaunaldiko bertso-kideoi nola eta zenbat eragin zigun lehiatu behar horrek.

Atzera egiterik banu, zer bertso-eskola nahi nukeen? Ba, ziur aski gaur egun sumatzen ditudan antzekoa: parekidea, sortzailea, ausarta, kantatzen adina entzuten erakusten duena. Eta gozamenera bideratua. Ez baitago gozamenaren bila ibiltzea baino lanketa hoberik.

Bi Bala-k horretarako giltzarik eman ote didan galdetu didazu. Ba, bai: lokaleko atekoa. Eskoba kirtenen ordez, gitarra elektrikoak dauzkagun bertso-eskolakoa. Eta gurea, desertu horretan bide propioa sortu nahi duten askoren artean adibide bat baino ez da.

Hargatik akaso, Gabiriako zelaietara begiratzen dut maiz, inbidia sanoz. Eta behinola bertso-eskolako lagun izan nuen Jokin Muruari zoriak emateko baliatuko ditut lerrook. Orain gutxi, Atera Herriarteko Bertsolari Lehiaketan txapela (mexikarra) irabazi berri duelako ere bai, baina batez ere, Gabirian bertsozaleatasuna ulertzeko duten moduari miresmena zor diodalako.


Gabirian ba al zagok denontzako tokirik, Jokin?

# Koplak

## Herrialdeetako batzarrak, urtarrilean eta otsailean

Urte hasierarekin ohikoa denez urteroko batzarrak egingo dituzte herrialdeetako elkarteek. Urtarrilean bi izango dira: 17an Arabako Bertsozale Elkarteak, Añanako Langraitz Okan; eta 31n Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Lesakan. Otsailean, berriz, 28an egingo dituzte batzar nagusiak Gipuzkoa, Bizkaia eta Bertsojarien Lagunak elkarteek, Bergaran, Larrabetzun eta Senperen, hurrenez hurren. Herrialdeetako batzarrak egin ondoren, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen txanda ailegatuko da, martxoaren 7an izango da batzarra.

## Poto-Finixa



Falta ez diren esku horiek

Bertsozale Elkarte

## Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zehaztuz. Bi erataria jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria egiterakoan.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

 **Lanku**  
www.lanku.com  
675 716 472



Eneko Dorronsoro-ren dokumentala